

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**134/2019 Foru Agindua, martxoaren 13koa, onesten duena Juan Carlos del Tío Martínez atxikitzea Zuzeneko Zergen Zerbitzuaren buruaren lanpostuari, zeinak 1038.001 kodea baitu, eta Ogasun Zuzendaritzakoa baita**

Urtarrilaren 15eko 6/2019 Foru Aginduaren bidez deialdia egin zen izendapen askearen sistemaren bidez betetzeko Zuzeneko Zergen Zerbitzuaren buruaren lanpostua, 1038.001 kodeduna, Ogasun Zuzendaritzakoa.

Eskabideak egiteko epea amaitu eta haiek aztertu ondoren, deialdiaren bosgarren oinarriaren arabera, Ogasun zuzendariak, espedientean jasota dagoen txosten arrazoitu batean Juan Carlos del Tío Martínez jauna proposatu zuen Zuzeneko Zergen Zerbitzuaren buru izateko.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu ziren. Beste alde batetik, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretuaren bidez funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartu ziren. Horietan guztietan ezarritakoarekin bat etorritik, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Juan Carlos del Tío Martínez atxikitzea Zuzeneko Zergen Zerbitzuaren buruaren lanpostuari, zeinak 1038.001 kodea baitu, eta Ogasun Zuzendaritzakoa baita.

Bigarrena. Foru agindu honek 2019ko martxoaren 25etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 13a

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**